

KALE GORRIAN ELIZTAR

Erri bizitzako «kale gorrian» lan egitera deitzen daukue eliztarroi Euskalerriko gotzainak. Mundu zabala da eliztarren «sola», Kristoren Erreinuko balioak erciteko. «Ez da mundua Elizarentzat, Eliza munduarentzat baino». «Elizaren norabide jakina dabe gauza guztiak: mundua geiago eta obeto zerbitzea». «Mundua zerbituz, zerbitzen dau Jauna». Olako pentsamentu ederrez beterik daukagu aurtengo garizumako pastoral idazkia. Euskalerriko gotzainen pastoralaren gai nagusia Eliza da. Obeto esanda, Elizarekiko atxikimendua eta jarrera. Orixe da idazkiaren erdigunea.

Nire asmoa ez da pasterala sakonean aztertzea. Nire gogoia, idazki orretan agertzen diran irudi batzuk aipatzea, besterik ez da. Exenpluz eta konparazioz eta irudiz jantzirik datorku pastoral mamitsu au. Asko ta asko nekazaritza eta itsas girotik aurtutakoak dira. Beste morderka bat teknika mundutik eta merkataritza edo artelan mundutik artuta dagoz. Badira ainbat irudi zeru-sapaitik artutakoak be.

Elizarekiko jarrera ezbardinak

Euskalerriko kristau alkartectan aurkitzen diran era bateko eta besteko mailen diagnostikoa egitean, onelako irudiak ta konparazioak agertzen diran pastoralcan. Askorentzat Eliza «itza-lita dagoen izar bat» dirudi. Badira morderka bat Eliza euren «fami-

lia aundia» lez bizi dabenak. Ez dira aliztar gitzi «Jahveren beartsuen» antzekoak euren sinismen sendo ta xalotasuna gaitik. Beste batzuk, ostera, ainbesteko batean egindako «tratu jarreran» bizi dabe euren eliztar lotura. Leenaren minez «oskarbiaren argitasuna eta arkaitz bakarraren batasuna» Elizarentzat amesten dabezan taldeak be or diardue. Oneintzat, Elizaren «leioetatik sartu diran mundu aizeak», eliztar askoren eginkizuna «izoztu» egin dau. Oraingo Eliza ez da bere ekintzetan «gizon bakar bat» bezela diardun alkartea.

Ainbati «erakunde erraldoia» iruditzen jake Eliza. Beste ainbati, barriz «ondakin bat» edo «zuaitz tantai zargailua» dirudi. «Salatuen aulkian eserita» eta «zor agiri gorria» ataratzen dautsoen talde borrokalariak be jo ta ke diardue. Ez dira, ez, isilik egoteko jaiok.

Gaurko norberetasunaren giroan ezin falta, nork bere «galbactik» dana pasau bearra. Bakotxak bere «lapikoa» eratu naia, atsegin jake egungo kulturari. Bere «otarra» batetan ari dan «eroslea» emoten dau, leku batetik au eta bestetik bestea artuz. Orrela Elizaren «jira bidetik» urten eta bakotxa bere «bidetik» doa. Ta orrek Elizaren «zatitzea eta eriotza» dakar, «izar sistema, bere erdigunea dauan izarra itzaltzean» desegiten dan antzera. Alkartearen «arnasa eskasaldian» eta «al dabena salba daitela» giroan, «Tomas apostoluaren irudia» bere taldetik urrunduta edo «Afaltokian atek itxita» egoan apostoluen irudia» ugaritzen doa.

Elizaren bizkar azurra

Eliza gure begiekin ikusten dana baino geiago da. Fedez ulertu daiteke Elizaren egiazko misterioa. Elizaren «zerbait geiago» ori ulertzeko «ilargiaren irudia» dator. «Ilargia» berez ez da basamortu malkartsu bat besterik. «Argia» be bada, ostera. «Argia» ez dau berea. Eta alan da guztiz be, berea dau. «Argi» ori barrik ez litzake guretzat «ilargia» izango.

Jaungoikoaren berbeak erakusten dau Elizaren egiazko barne sakona. «Artelan» baten aurrean, «aditu baten berbak» artelan orren alderdi ezkutua erakusten laguntzen daskun antze-

ra alaxe Elizaren misterioa agertzen jaku Jaungoikuaren berbearen bitartez. Ta olako otoitz polita: «Eliza, jabetu zaitez zer zaran, ez zurez, Arengandik baino».

Jesukristo ez da Elizaren «Fundatzaile zana edo ildakoa», beraren «Artzain bizia» baino. «Iturburuak bere baitatik jaiotako erreka» atergabe sortzen eta indartzen dauan bezala, Kristok atergabe sortzen diardu bere Eliza. Ez dau Jauna besterik jabe. Badau Elizak «bizkar azur bat» inoiz okertzen ez jakona: Jesusen espirituua.

Jesusen espirituaren indarrez «ernalduta» dagonez, Eliza «umetoko bizi» baten pareko biurtzen jaku. Salbatzailearen «azia» jaso eta «sabelean» ernaratzen dau, Jaungoikoaren seme-alabak sortuz. Origaitik geure «Ama» deitzen dautsagu Elizari. Ez dago oneneak emonda. Bere «sabela ez dago agortuta», ezta «artuta» be. Gitxiago dirudi «eriotza zuloan jarritako arri-azurra». Bizibizirik dago historia onetan, naizta «argitasun osorik» ez izan.

Eliztarrak ez dira «ibiltari bakartiak», alkaturik doan «erria» baino. Bakotxaren fedea, alkarteko fedearen «garretan bizten dan sua» da. Elizaren «eskutik» bakarrik egiten da topo Jesusen biziarekin. Eliza Jesus erakusten duan «Jon Bateatzailearen atzamarra» dirudi. Jesusen «abotsa». Norberaren sinismena, Elizaren lotura galtzean, ez da fede katolikua, «urperatzen baten salbatu al izan diran fede zatien bat» baino. Eliz alkartearen «ura eta ongarrria» falta ezkerro, bakotxaren fedea iartzen doa betirako. Beti be, Eliz alkartea bakotxaren eta taldearen fedea konpondu eta osotuko dauan «untziola» da. Onek ez dau nai esan Elizak Jaungoikuaren salbamenaren «monopoliorik» daukanik. Jaunaren Espirituak Elizaren «mugatik kanpo» be egiten dau salbamena.

Eliza agerikoa eta espirituzkoa

Jesusen Eliza ez da «arimaz eta biotzez» bakarrik osotutako alkartea. Kristok «erri bat» nai izan eban, ez «espirituzko alkarte bat». «Erri bat eta gorputz bat» da Jesusen Eliza. Au kontuan artuta, ez dagoz zetan «erakundea eta karisma» alkarren aurka jarri bearrik. «Bikote au» Espiritu beraren Elizan jaiotzen diranez, bie

dagokie alkarrekin «erdi ilunetan» bila jardutea. Erakundea ez da Elizaren bearrezko «azal utsa», ezta derrigorrezko «andamio bat» be. Erakundea bera be Eliza da, «gorputza gizakian» bezala, eta ez espirituaren «estalki utsa».

Erakundearen eta karismaren arteko artuemonak azaltzeko, ona beste irudi bi: san Frantzisko il zaneko elizatxoa eta Jesusen gizatasuna. Asisko Poverelloaren «eliza txikitxoa izugarritzko basilika barroko batean «bilduta aurkitzen da, «Basilika erraldoi» orrek aldi berean «ezkutatu eta zaindu» egiten dau munduko txokorik espiritualeketako elizatxoa. Agerikoa dan Elizaren «aurpegi latz» orrek bere Jaunaren antzeko egiten dau. Jesusen denporako asko ta asko oztopatu zan «Jesusen gizatasunean». Ez eben «gizatasun» aretan «jaingoikotasunaren agerpenik» ikusi. «Zerbitzari oinazedunagan» ez eben «jaunkotasunik» somatzen.

Maitasun historia

Santutasuna eta pekatua, «alca eta lastoa», sarritan alkartuta bizi dira Elizan. Bakotxaren eta taldearen pekatua, batzutan, Elizaren «erakunde zokoetan odolbilduta eta izoztuta» dago. Baina santutasuna ugariago aurkitzen da. «Maitasun historia» Elizaren barren-barrenean gordeta dago. Bere barnean daroa Ebanjelioa, atsedean artzen izten ez dautson «legami bizigarria». Inoiz sikua eta idorra ageri dan Elizaren «lurrak», badau bere «lurazpia» opa-roa eta aberatsa: Jesusen espirtua. Eliztar izatearen neurria ez dau emoten jerarkiko mailak, «maitasunaren garrak» baino. Kristoren espirtuak markatzen dau Elizaren «erretena eta norabidea». Definizio dogmatikoak curak be, ez dira «elmuga, abiapuntu» baino, geroko garapena zuzentzeko.

Ortik dator Elizarengan konfiantza izatea. Baina orrek ez dau nai esan inori «txeke zuria» emoten danik. Orrek eskatzen dau eliztarren biotz-barritzea. Ta ori «marketing programa edo aurpegiko zirugia bat» baino serioagoa da. Eliztarren ekintzak non nai, baita «kale gorrian» be, «jatorri marka» eroan bear dabe. Bestela Eliza «gordailu eta erreserba» biurtuko da. Ta ez litzake izango Jesusen Erreimuko «argia eta seinale».

A. Olea